

Auzoa eta herria



3

gurasoak
Lagunduz


EGILEAK:

| | |
|------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|
| Proiektuaren arduraduna: | Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna) |
| Pedagogi diseinua: | Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria) |
| Errealizazio didaktikoa: | Xabier Elortza (HABEko teknikaria) Alex Mungia (HABEko teknikaria) |
| Ikastunitatearen egilea: | Ainhoa Ezeiza (Legazpi 6 euskaltegia) Joseba Ezeiza (Legazpi 6 euskaltegia) |
| Errealizazioa: | Juan Miguel Gutierrez (HABEko teknikaria) |
| Irudia eta diseinu grafikoa: | Aitor Amutxastegi (HABEko teknikaria) Sabin Arzelus (HABEko teknikaria) |
| Idazkariak: | Mertxe Salegi (HABEko idazkaria) Beatriz Iturrioz (HABEko idazkaria) |

© HABE 2001. ISBN 84-95827-06-9 (liburuxka honena)

© HABE 2001. ISBN 84-95827-02-6 (sail osoarena)

Legezko gordailua: SS-1051/01

Inprimaketa:  **gertu**. oñati. tfnoa: 943 78 33 09. gertu@telefonica.net

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Donostiako Legazpi 6 euskaltegiari materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak:  **eragin** | www.eragin.com

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Piratekin matematikaren munduan CD-ROMa. 2000. Elhuyar.

EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedia CD-ROMa. 1997. Elhuyar.

IHESI Euskal Herriko Gida. Josu Etxaniz. Argia.

CONSUMER aldizkaria. 1998ko uztaila. Eroski.

Oporretako koaderno 4. 1995. Ikastolen Elkarte. Elkarlanean.

Oporretako koaderno 5. 1995. Ikastolen Elkarte. Elkarlanean.

Oporretako koaderno 6. 1995. Ikastolen Elkarte. Elkarlanean.

Auzoa, eta herria



3

gurasoak
Lagunduz

AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1. Lan-egitasmoa **6**
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea **7**

2. ATAZAK

- A. ataza: Zenbat dakigu geure ingurukoei buruz? **8**
- B. ataza: Txangoa antolatzen **18**
- C. ataza: Nolako da geure ingurua? **32**

3. MATERIAL OSAGARRIAK

- A. Hauek bai buruhaustek! **39**
- B. Besterik nahi? **53**

4. AUTOEBALUAZIO-ORRIA **54**

1. LAN-EGITASMOA

Lehen Hezkuntzaren helburuen artean pisu handia du inguruaren ezaguerak. Horrela, adin horretako ikasleek lan ugari egin behar izaten dituzte beren herriari buruz: inguru fisikoa, historia, kultura, herriko pertsonaia ospetsuak... maiz jo behar izango dute gure haurrek liburutegi edota hiztegi entziklopedikotara informazio bila.

Baina, informazioa aurkitzeko baliabideak eskuratzeaz gain, informazio hori aukeratzen eta helburuaren arabera laburtzen jakin beharko dute gure gaztetxoek, eta, askotan, eskolako lana prestatzeko, baita gurasoon laguntza ere.

Aurten, gainera, gure seme-alabek eskolan programa berezi batean parte hartzeko aukera izango dute: hain zuzen, Euskal Herriaren ezagutza sustatzeko beste herri bateko eskola-umeekin trukea egingo dute.

Jakina, horrek familia osoa inplikatu du, lagun berria etxeratu egingo zaigun neurrian, eta, beraz, denon lana ere bada bere etorrerarako plan aproposa prestatzea.

A ATAZAN landuko dugu irakasleek igorri diguten oharra. Bertan eskatzen digute bidalitako inkestari erantzuteko, eta, horretarako, hainbat entziklopedia eta antzeko material gainbegiratuko ditugu.

Jolasean ibiltzeko aukera ere izango dugu!

B ATAZAN gaiarekin zerikusia duten hiru testu irakurriko ditugu: herri baten deskribapena, biografia bat eta bidaiei buruzko testu bat, dena txango bat prestatu ahal izateko. Ikusiko dugunez, laburpenak nola egin, testuak nola irakurri eta antzeko galderei erantzuten saiatuko gara.

C ATAZAN ikusiko dugu nola lagundu adin honetako haurrei gutun sinpleak idazten; horretarako, ideia batzuk emango ditugu.

Bestalde, MATERIAL OSAGARRIETAN zera aurkituko duzue:

- **HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!** atazan planoekin, ibilbideekin eta bidaiekin zerikusia duen hainbat jolas sortuko dugu, haurrei matematiketan laguntzeko; bai eta CD-ROM bateko pirata jostariekin jolastu ere.
- **BESTERIK NAHI?** atazan geure bidai liburu zoragarri bat ezagutuko dugu, eta geure haurrentzako ipuin bat asmatuko.

Bidaia, honez gero, hasia da!

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena. (6. or.)

A ATAZA: ZENBAT DAKIGU GEURE INGURUKOEI BURUZ?

- Gutun bat ulertu, eta inkesta bati erantzun.
- Iritziak trukatu, eta zailtasunak aurreikusi.
- Kontsultarako materialen deskribapena edo iruzkin laburrak ulertu, eta izenburuarekin lotu.
- Nork bere etxean dituen kontsulta-materialen fitxa osatu, eta taldean aurkeztu.
- Geografia eta pertsonaia historikoak oinarri dituen jolasa prestatu, jokatu, eta horretaz hitz egin.

(8. or.)

MINTZ/IRAK

B ATAZA: TXANGOIA ANTOLATZEN

- Irakurtzeari buruzko hainbat argumentu ulertu eta aztertu.
- **CONSUMER** aldizkariko parke naturalei buruzko artikulua irakurri, eta hainbat galdera egin, ulermen-maila baloratzeko eta informazio nagusia bereizteko.
- INTERNETeko Familia Ugarien Gida irakurri, eta adierazi nola argitu pasarte ilunak haurrei.
- IHESI gidatik aukeratutako zati bat irakurri, eta haurrek egindako laburpenak irakaslearen balorazioari lotu.
- Laburpenak egiteko aholku batzuk bildu, eta testuaren laburpena idatzi, aholku horien arabera.
- EUSKAL HERRIA MULTIMEDIA materiala oinarri egin behar duten lanaren aurrean seme-alabek izan ditzaketen zalantza eta arazoei buruz mintzatu, eta aholkuak eman.
- Herrien deskribapena egiteko egiturak konparatu, eta, helburuaren arabera, egokiena aukeratu.
- Haurrak egitura zehaztean egin dituen hutsegiteak adierazi, eta eskema berregin.

(18. or.)

IRAK/MINTZ/IDAZ/ENTZ

C ATAZA: NOLAKOA DA GEURE INGURUNEA

- Ezagutzen dituzten pertsonaia mitologikoak zerrendatu
- Hainbat pertsonaia mitologikoren kontaerak irakurri eta kontatu, besteek zein pertsonaiari dagozkion asma dezaten
- Ipuin baten gidoia asmatu.

(32. or.)

IRAK/MINTZ/IDAZ

AUTOBALUAZIO-
ORRIA
(54. or.)

MATERIAL OSAGARRIAK

A) HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

- Eguraldiaren mapa interpretatu, azalpenak ulertu, tenperaturak asmatu logika-taula batean eta antzeko jokoren bat asmatu.
- Euskal Herriko mapa batean dagoen ibilbidea taulara pasatu, eta antzekoa egin Aste Santurako planarekin.
- Herri baten planoak interpretatu, eta antzeko bat egin, euren herria edo ingurukoak hartuta.
- Hotel, apartamendu eta kanpinen inguruko informazioa jaso, eta taula konparatiboa atera. Egoera jakin baten aurrean gastatuko denaren kalkulua egin. Antzeko egoera asmatu, bidai agentzietara bisita eginez, adibidez.
- Britainia Handian erabiltzen dituzten neurriak hemengoekin konparatzeko eragiketa matematikoak egin, eta libra eurotara aldatu. Ondoren, euroa pezetarekin konparatzeko taula osatu.
- PIRATEKIN MATEMATIKA MUNDUAN jolas multimedialak gainbegiratu, eta antzeko jolasak pentsatu/egin.

(39. or.)

IRAK/MINTZ

B) BESTERIK NAHI?

- Ezagutzen dituzten pertsonaia mitologikoak zerrendatu.
- Hainbat pertsonaia mitologikoren kontaerak irakurri eta kontatu, besteek zein pertsonaiari dagozkion asma dezaten.
- Ipuin baten gidoia asmatu.

(53. or.)

IRAK/MINTZ

ZENBAT DAKIGU GEURE INGURUKOEI BURUZ?

Gero eta gehiago dira haurrentzat argitara ematen diren kontsulta- eta jolas-material hezigarriak. Horietako batzuk eskolan erabiltzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, etxerako egin dira. Ezagutzen al duzu euskaraz dagoen eskaintza?

1

- Jarraian duzue zeuen seme-alaben irakasleak bidali dizuen ohar bat. Bertan eskatzen dizue inkesta bati erantzuteko. Irakurri, eta bete.

8

2001eko urriaren 26a

Guraso horiek:

Dakizuen bezala, Lehen Hezkuntzan helburu nagusienetako bat da haurrek inguruan dutena ezagutzea: inguru fisiko eta politikoa, historia, artea, etab.

Guk, eskolan, hainbat eginkizun antolatzen ditugu horri begira; baina umeez eskolaz kanpo ere aritu behar dute. Izan ere, eskolak bere mugak ditu, eta familiaren ekarpena ere oso garrantzitsua da.

Eskolaz kanpo umeez egin ditzaketen ekintzak ondo antolatzeko, jakin behar dugu nolako materialak dituzuen etxean. Horretarako, ohar honekin batera doan inkesta prestatu dugu.

Inkesta ahalik eta azkarren bete eta tutoreei eman, aurtengo ekintzen plana lehenbailehen egiteko.

Zalantzarik baduzue, jo geuregana.

Mila esker.



| INKESTA | | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------------|-----------|
| | BAI | EZ | BESTERIK? |
| 1. Etxean baditugu entziklopedia edota kontsultarako baliabideak: | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Gaurkotuak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Euskaraz | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Multimediak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Gizarte irakasgairako lagungarriak | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 2. Ez dugu lehen aipaturako modukorik, baina erosteko prest gaude. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 3. Erosteko prest bai, baina ez dakigu zer erosi. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 4. Liburutegiak baditugu inguruan. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 5. Liburutegietara hurrekin joateko ohitura badugu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 6. Asteburu, opor eta abarretan joaten gara inguruak ezagutzera: | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Mendira | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Hondartzara | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| - Herrietara | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 7. Joaten garenean, bertako interesguneetara hurbildu eta ezagutzeko ahalegina egiten dugu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 8. Eskolatik txango bereziak antolatzen badira astebururako, prest gaude irteera horietan parte hartzeko beste guraso batzuekin elkarlanean. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 9. Parte hartzeko eta garraio-arazoetan laguntzeko; adibidez, autoa eramanez. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |
| 10. Gurasooi laguntza ematea nahi genuke, hemen azaldu diren zenbait aukera gauzatu/garatzeko. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | |

- Irakasleak inkestak aztertu, eta emaitzak emango dizkizue.

- Erantzunen ehunekoak atera.

| GALDERA | BAI | EZ | BESTERIK? |
|---------|-----|----|-----------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

- Taldean eztabaidatu inkestan aipatutako baliabideen beharraz eta balioaz.

2

Orain aztertuko dugu nola ikusten dugun geure burua, seme-alabekin ekintza horietan jarduteko.

- Taldeka jarri, eta hitz egin honako puntu hauei buruz.

- Zer iruditzen zaizue familia inplikatzeko inguruaren ezagutza bultzatzeko ekintzetan? Parte hartzen al duzue eskolak antolatzen dituen kanpoko ekintzetan?
- Zeuen seme-alabek antzeko ekintzak egin behar izaten al dituzte? Aipatu gogoratzen dituzuenak.
- Zer eskatuko zenioke eskolari zentzu honetan? Materialak, berauek erosteko laguntzak, horrelako ekitaldi gehiago/gutxiago antolatzea...



- Taldetxotan jarri, eta bete honako taula.

Nolako zailtasunak izan ditzaket haurrari aipatu ditugun zereginetan laguntzeko?

- Nik neuk ere ez dut ingurua ongi ezagutzen.
- Entziklopediarik ez dut etxean, eta, oraingoz, ez dut erosteko asmorik.

- Zeuen zerrenda beste talde batenarekin trukatu. Egin proposamenak, zerrendan jasotako oztopo eta arazoei irtenbideren bat emateko.

3

Eskolako irakasleei zuen kezka agertu ondoren, gutun bat bidali dizuete. Bertan kontsultarako lagun-garriak zerrendatu dizkizute. Helburua da gurasook material ezagun batzuen berri izatea, haurrei eskola-lanetan laguntzeko.

- Hona hemen zerrenda eta bakoitzaren fitxa edo iruzkin labur bat, baina nahasian.
 - Lotu izenburuak eta fitxak.

1. EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedia. Elhuyar.
2. Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. Klaudio Harluxet Fundazioa.
3. Munduko Atlas. Klaudio Harluxet Fundazioa.
4. Euskal Kultura Gaur. J.M. Torrealdai. Jakin.
5. BERTAN. Gipuzkoako Foru Aldundia.
6. IHESI, Euskal Herriko Gida. Josu Etxaniz. Argia.

A FITXA

8 liburuki, 21 milioi testu-karakteretik gora, 84.000 sarrera eta 8.000 azpisarrera baino gehiago.

Lexikoan 55.000 sarrera eta 68.000 adieratik gora; 1.300 azalpen entziklopediko.

Onomastikan 29.000 sarrera, horietatik 8.000 Euskal Herriari dagozkionak.

8.000 ilustrazio: argazkiak, eskemak, taulak, irudi infografikoak, mapa fisiko eta politikoak eta kartografia historikoa.

B FITXA

AURKIBIDE NAGUSIA

1. LIBURUGINTZA 1545-1999: 450 URTE

Liburua historian

Liburua gaur

Haur eta gazteentzako argitalpenak

Irakaskuntza-liburua

Jakintza-liburuak

Literaturgintza garaikidea

2. IDAZLEAK

3. ARGITALGINTZA

Nazioarteko argitalgintza

Euskal argitaratzaileak

4. LIBURUA MERKATUAN

Komertzializazioa

Irakurketa

5. KRONOLOGIA

6. BIBLIOGRAFIA

C FITXA

Liburuxka-bilduma duzue hau, Gipuzkoako ohiturak, geografia, txangoak, ekonomia eta antzeko alderdiak azaltzen dituenak. Liburuxka bakoitzak izenburu bat du: Neguko festak (1. alea), Gipuzkoako karst eta leize-zuloak (6. alea),

Gipuzkoako trenak (10. alea)...

Testu atseginak dira, argazkiak eta marrazkiak hornituak, eta oso modu argian azaltzen ditu

Gipuzkoaren interesguneak.

Gainera, aleka eros daitezkeenak, nork bere jakin-minaren arabera eros ditzake. Kultura,

Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak argitaratu

ditu.

D FITXA

Egilea: Pili Lizaso eta beste batzuk

Formatua: CD-ROMa

10. argitalpena

Migel Altzo Saria 1998

Edukia: geografia fisikoa (ibai eta mendiei buruzko informazioa, plubiometria...), geografia politikoa (udal-erri mailarainoko informazioa, ekonomia...), euskara (tipologia, historia, euskalkiak...), historia (Euskal Herrikoa eta probintzi mailakoa), kultura (literatura, artea, tradizioak...), Euskal Herri osoko 1.400 pertsonaia ezagun (musikariak, pintoreak, idazleak...) eta jokoak.

Gure herria testuz, irudiz, argazkiak, bideoz eta soinuak erakusten dizu material honek. Sekula ez da izan hain erraza, interesgarria eta entretenigarria Euskal Herrian barna ibiltzea. Herri bat osatzen duten elementu guzti-guztiak aurkituko dituzu, eta, gainera, zuk nahi duzun eran antola dezakezu kontsulta. Bidaia zoragarria proposatzen dizugu... Euskal Herria molde berriz ikus dezazun.

E FITXA

Hiru atal nagusi ditu, beraz, liburu honek. Euskal Herriari buruzkoa lehenengoa; mapa fisiko-politikoz eta estatistika-taulez itxuratua. Munduko estatuak biltzen dituen da bigarrena; mundu osoaren eta kontinenteen mapekin batera, estatuz estatuko informazio geografikoz, demografikoz, ekonomikoz eta politikoz taxututa. Eta, azkenik, Estaturik gabeko Herriak plano nabarmenagora ekarri nahi dituen; munduan bizi diren herri eta etnien kokapen eta eremu geografikoa lurraldez lurralde seinalatzearekin batera, horien hiztegi alfabetiko sintetikoa, bakoitzaren historia eta gaurko egoera agertzen duena.

F FITXA

Lapurdiko kostaldetik Enkarterriraino eta Arabako mendebaldetik Bardeetaraino

Autoa hartuta, bizpahiru egunez egiteko txangoak. Asteburu batean Arantzazutik abiatu eta Oñati, Loiola eta Bergararik Arrasatera helduko zara, edo...

- Euskal Herriko naturarekin behin baino gehiagotan egingo duzu topo; mendiak, haranak, ibaiak... Naturgune interesgarrienen berri izango duzu.
- Mapan ia galduta dauden herri txikiak gonbidatuko zaitugu.
- Bisitatutako herri, hiri eta inguruen datu historikoak eskainiko dizkizuegu.
- Euskal Herriko arteaz eta arkitekturaz gozatzeko aukera izango duzu.
Euskal Herria ezagutzuz hainbat txango egiteko, osagai ugari jarri dugu zure eskura:
- Ibilaldi bakoitzean erakusgarri, mendi, ibai, eliza, herri, trikuharri, eskultura... eta paisaien argazkiak aurkituko dituzu.
- Hiriburuetako planoak.
- Bi edo hiru egunetako ibilbide guztia adieraziko diguten mapak.
- Txangoan zehar interesgune nagusiak zein diren adieraziko digun artikulua.
- Edozertarako prest egoteko, ehunka helbide eta telefono interesgarri.

- Fitxetan dioena kontuan hartuta, azaldu taldeko kideei ea material horiek edota antzekorik ezagutzen duzen.
 - Material horietakoren bat baduzue, ekarri klasera gainbegiratzeko.
- Ba al duzue antzeko beste materialen bat etxean? Bestela, jo liburutegirik hurbilenera –eskolakoa izan liteke–, eta hautatu gustuko zerbait –bideoak, CD-ROMak... izan daitezke, noski–. Bete ezazue fitxa hau, eta aurkeztu taldeari begiz jotako materiala.

| | |
|-------------------------------------------|--|
| Zein izen du? | |
| Nork argitaratu du? Noiz? | |
| Zer da? | |
| Zenbat alek osatzen dute? | |
| Zein da bere edukia? | |
| Erabilerraza al da? | |
| Haurrei interesgarria irudituko ote zaie? | |
| Zein adinetatik aurrera? | |
| Eta zuei? | |
| Non edo nola lor daiteke? | |
| Zenbat balioko du? | |
| ... | |
| | |

4

Elhuyar Kultur Elkarteak 1997an EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedia argitaratu zuen. Bertan, beste gauza askoren artean, bi joko proposatzen ditu, Euskal Herriko geografia fisikoaren eta pertsonaia historikoen inguruan dugun ezagutza neurtzeko. Hemen duzue horien bertsio moldatu bat, zeuen haurrekin erabil dezazuen –arratsalde euritsu batean, adibidez–.

- Ezagutzen al duzue EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedia? Baten batek etxean baldin badu, azal dezala zertan den. Ahal izanez gero, ikasgelara ekarri, eta erakutsi nola dabilen.
- Jokoa egiteko, hainbat fitxa osatu behar ditugu: 3 geografikoak eta 3 pertsonaienak.
 - Hiru talde egin. Talde bakoitzean prestatu multzo bakoitzeko fitxa bat, hurrengo adibideen modura. Fitxak osatzeko, ideia interesgarria izan liteke aipatutako multimedia entziklopedia edota gelara ekarri duzuen beste libururen bat erabiltzea; horrela, material horiek hobeto ezagutzeko aukera izango dugu eta!

GEOGRAFI FITXAK


Izena: K A K U E T A

Zer da? Arroila.

Zein herrialdetakoa? Zuberoakoa.

Zein eskualdetakoa? Pirinioetakoa.

Besterik: Uhaitza ibaiak zeharkatzen duen haizpitartea da, 350 metroraingo altuera duena.



Izena: _ _ _ _ _

Zer da? Mendia/mendatea/ibaia/udalerria.

Zein herrialdetakoa?

Zein eskualdetakoa?

Besterik: Metroak/isurialdea/mugakideak/jarduera nagusia...

Izena: _ _ _ _ _

Zer da? Mendia/mendatea/ibaia/udalerria.

Zein herrialdetakoa?

Zein eskualdetakoa?

Besterik: Metroak/isurialdea/mugakideak/jarduera nagusia...

Izena: _ _ _ _ _

Zer da? Mendia/mendatea/ibaia/udalerria.

Zein herrialdetakoa?

Zein eskualdetakoa?

Besterik: Metroak/isurialdea/mugakideak/jarduera nagusia...

PERTSONAIA HISTORIKOEN FITXAK

Izen-abizenak: AITA VILLASANTE

Nongoa da? Gernikan jaioa, Arantzazun bizi izan da.

Zein arlotakoa da? Euskara.

Zein da bere ekarpen garrantzizkoena?

Euskararen eta euskal literaturaren azterketa.

Besterik: Euskaltzaindiko lehendakaria 1970-88an, euskara batua bultzatu zen garaian.



Nongoa da?

Zein arlotakoa da? Euskara/ Zientzia/ Musika/ Bidaiak/ Guda...

Zein da bere ekarpen garrantzizkoena?

Besterik: Lanbidea/ jaiotze-data/ heriotza-data/ heriotza-lekua...

Izen-abizenak: _____

Nongoa da?

Zein arlotakoa da? Euskara/ Zientzia/ Musika/ Bidaiak/ Guda...

Zein da bere ekarpen garrantzizkoena?

Besterik: lanbidea/ jaiotze-data/ heriotza-data/ heriotza-lekua...

Izen-abizenak: _____

Nongoa da?

Zein arlotakoa da? Euskara/ Zientzia/ Musika/ Bidaiak/ Guda...

Zein da bere ekarpen garrantzizkoena?

Besterik: Lanbidea/ jaiotze-data/ heriotza-data/ heriotza-lekua...

- Fitxak prestatu ondoren, jokoa arauak ikasiko ditugu. Instrukzioak nahasian daudenez gero, ordenatu.

- () Partidak irauten duen bitartean, 4 pista eska daitezke guztira, baina pista bakoitzeko puntu bat kenduko da.
- () 0 puntura lehen iristen denak galduko du jokoa.
- () Esandako letra ez balego, urkamendia marrazten hasiko gara. Marrazkia bost urratsetan osatuko dugu.
- () Aurkakoari zenbat letrako hitza asmatu behar duen esan, eta, gero, berak letra bat aipatu behar du; hitzak letra hori baldin bada, hitzaren zein tokitan jarri esango diogu. Horrela jarraituko du letra guztiekin banan-banan. Bost aukera izango ditu, izena asmatzeko.
- () Jokoa 40 punturekin hasiko da; esan bezala, partida bakoitzean agortutako pisten arabera, puntuak kentzen joango dira (0, 1, 2, 3 edo 4), eta, partida galtzen bada (urkatu), 5 puntu gehiago galduko dira.



- Orain, taldeka jarri, eta jokatu partidatxo bat.
- Partida amaituta, mintzatu zeuen artean:

- Zer iritzi duzue horrelako jokoei buruz?
- Gure seme-alabentzat aproposak ote dira?
- Interesatuko ote zaie horrelakorik?
- Ezagutzen al duzue antzeko besterik?

TXANGOIA ANTOLATZEN

Gure hurrek oso maiz egin behar izaten dituzte laburpenak, ikasgai gehienetan; baina zalantza asko izaten dituzte, eta ez dute beti asmatzen lana taxuz egiten: zer jarri, zer ez jarri, nola esan, zer kopiatu... Horren inguruan arituko gara, hain zuzen, ataza honetan: adibide batzuk ikusiko ditugu, eta aztertuko dugu zer egin dezakegun, hurrei lan honetan laguntzeko.

1

Eskolak gure inguruaren ezagutza bultzatu nahian, lehiaketa bat antolatuko du ikasleen artean: Euskal Herriko ingurune bat aukeratu behar dute hurrek taldeka, eta ingurune horri buruzko lan bat egin. Lanik onenak kontuan hartuta egingo dira hiruhilabete horretan txangoak, lan horietan azaltzen diren lekuetara joango baitira.

- Hitz egin taldean honako puntuen gainean:
 - Ohikoak al dira era honetako lanak? Egin behar izan al dute inoiz zuen seme-alabek gida turistikorik, txango baten plangintzaren bat, euren herriaren inguruko lan monografikoren bat...?
 - Gustura ikusi al dituzue lan horretan? Inoiz aritu ez badira, uste duzue interesgarriak gertatzen ahal zaizkiela horrelako lanak?
- Zure haurraren taldeak erabaki du lana Gorbeia Parke Naturalari eta bere inguruneari buruz egitea. Irakasleak testu hauek eskuratu dizkie:

Nerbioiren iturburuari eta Gorbeia Parke Naturalari buruz IHESI gidan agertzen den testua.



Irakasleak esan die EUSKAL HERRIA multimedia entziklopedian Aramaio izeneko herriari buruzko informazioa bilatzeko, Gorbeiarda joan aurretik bertatik igaro baitaitezke.



CONSUMER aldizkarian parke naturalei buruz laburpen gisa argitaratu dena: zer diren eta zertan hobetu behar duten azaltzen da bertan.



- Ahal izanez gero, jo informazio-iturrietara, eta aurkitu bila gabiltzan testuak, artikulua... Aparteko informazioirik nahi baduzue, jo JALGI bilatzailerara (www.jalgi.com), ea beste zerbaite topatzen duzuen!

2

Bihar lan-taldeko kideetako bakoitzak irakurrita eraman behar du testuetako bat, eta bere kideei esan beharko die zein informazio-mota dagoen testu horretan, ea baliagarria iruditzen zaien egin behar duten lanerako, eta abar.

Geure haurrak Consumer aldizkariko artikulua irakurri behar du, baina geure laguntza behar du. Izan ere, lehen begi-kolpean ez zaio oso samurra iruditu.

- Gainbegiratu bat eman zeuek ere testuari, eta adierazi zein ote diren haurrak igarri dituen zailtasunen iturburuak. Nolako laguntza eman beharko diogula pentsatzen duzue?

Parke Naturalak: Batzuk hobetu beharra dago

Eremu natural babestuen premia eta egokiera gaur ez du inork eztabaidan jartzen, aisiarako aukera ederra eskatzen baitiete herritar guztiei. Ingurugiroaren aldetik eta fauna, flora eta egitura geomorfologiko berezien kontserbazio-baldintzen aldetik balio ukaezinak izateaz gainera, hor daude hezkuntzarako duten gaitasuna, sortzen duten sentsibilizazio ekologikoa eta ume eta helduentzat ematen dituzten olgeta-aukerak. Parke Nazional, Parke Natural, Biosfera-Erreserba eta bestelako eremu babestu guztiak errespetatu behar ditugu, bizi garen inguru naturalarekin pertsona solidario bezala jokatzu, ondasun urria baitira.

Erakunde publikoei dagokie, berriz, gizarteak eremu hauei ematen dizkien egiteko horiek betearaztea; ez alferrik, leku horien funtzionamendurako erabiltzen diren aurrekontuak diru-kutxa publikoetatik ateratzen dira. CONSUMEReko zenbaki honetan frogatzen denez, Parke Natural guztiak azaltzen dute ingurugiro-interes handia, baina batzuek, hala ere, neurririk gabeko turismoaren edo nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako nahiz beste era bateko ustategien eragin kaltegarriak jasaten dituzte.

Aztertutako 21 Parke Naturalek bisitariari eskaintzen dizkieten prestazioak hobetu beharko lituzkete. Batzuetan, irispideak egoten dira gaizki, oso nahasiak edo gaizki seinalizatuta, eta, beste batzuetan, berriz, ez da harrerako etxerik eta pertsonalik izaten, ezta Parkearen balio naturalak Interpretatzeko Gune edo material didaktikorik ere. Eta bat baino gehiago dira guardarik ez dutenak. Bestalde, badaude jendearentzako komunik edo aparkalekurik ez dutenak ere. Laburtuz, beraz, denetan ematen da interes ekologiko eta ludiko handia, baina horietako batzuk bisitariak asetzeko behar diren baliabideez hornitu behar dira.

Besterik gabe, jendeari uda eder bat opa izatea, hori bakarrik falta zaigu. Eta esatea ezen datorren irailean CONSUMERek 21 Parke Natural horiei buruzko gida praktikoa argitaratuko duela, parkera nola iristen den, ingurugiroaren aldetik zer interesgune dituen eta zein azpiegitura dituen azalduz.

- Haurri laguntzen hasita, lehendabizi erabaki behar da testua nola irakurriko duen etxean: ozenki zeurekin, ala isilpean. Hona hemen irakurtzeko modu bien aldeko argumentuak nahasian.
 - Taldetxotan bilduta, antola itzazue ideiak taulan, eta adierazi zer esan nahi duten:

| OZENKI IRAKURRI GURASOAREKIN | BAKARKA IRAKURRI |
|------------------------------|------------------|
| | |

- Zentzuaren araberako doinua ematen ikasten du.
- Bere erritmoan irakurriko du.
- Dakiena erabiltzen du, testua interpretatzeko.
- Komunikazioa eta eztabaida ahalbideratzen ditu.
- Beste testuinguru batzuetan, beste testu batzuekin ikasi eta ulertu dituen estrategiak praktikara eramaten ditu.
- Ulertzen laguntzeko zenbait ariketa proposatuko dizkiogu arian-arian.
- Haurrak irakurtzeko egiten duen prozesua balora daiteke.
- Interpretatzean izan dituen erroreak errazago harrapatzen dira; bere mugak antzemateko egokiagoa.
- Gurasoaren parte-hartzea errazten du.

- Modu laburrean, zer esan daiteke bi teknika horien alde? Ereduaren antzera, laburbildu isilpean irakurtzearen aldeko arrazoiak pasarte labur batean.

OZENKI IRAKURTZEAREN ALDE:

Haurrarekin eztabaidatzeko aukera ona da, bere pentsamenduei buruz hitz egiteko, eta erraz ikus daiteke non eta zertan behar duen laguntza.

BAKARKA IRAKURTZEAREN ALDE:

NOLA IRAKURRI HAURRAREKIN?

Funtsean hauxe hartu behar da kontuan erabakiarekin asmatzeko:

- Haurra nolakoa den, nola moldatzen den bakarka normalean.
- Testuaren zailtasun-maila.

- Consumer aldizkariko testuaren kasuan, nola proposatuko zenioke zeuen seme edota alabari irakurtzeko: ozenki ala isilpean? Hitz egin taldean hartu duzun erabakiaz.



- Modu batera edo bestera irakurrita ere, geure haurra jabetu egin behar da testuak duen informazio nagusiaz, bihar eskolan bere ikaskideei horren berri emateko. Nola ziurtatu ondo ulertu duela? Taldean zerrendatu aukeran dauden moduak.
- Erabilienetako bat hauxe da: haurrari galderak egitea. Baina zer komeni da galdetzea? Nola egin galderak? Oro har, bi galdera-mota daudela esan daiteke: hitzez hitzekoa eta inferentziak egitekoak.
 - Irakurri bi definizioak. Emandako adibideak dagokien tokian jarri.

**A. Zer hobetu beharko litzateke bisitatutako parke naturaletan?
B. Zer dela eta dira heziketarako egokiak parke naturalak? Ezagutzen al duzu baten bat?**

ULERMENERAKO GALDERAK

HITZEZ HITZEKOAK

Testuari begira zuzenean erantzuten direnak. Irakurleak ez du aha-lerin handirik egin behar.

Adb.:

...

INFERENTZIAK EGITEKOAK

Irakurleak testutik atera behar du erantzuna, baina errealitatearekin edo dakienarekin lotuz. Horrek esan nahi du interpretatu behar duela, iritzia eman, orokortu, hipotesiak formulatu, ... Zailagoak dira, baina ulermen-maila hobea lortzen laguntzen dute.

Adb.:

...

- Prestatu talde txikitan era bateko eta besteko hiruna galdera.
- Trukatu galderen zerrendak, eta bilatu erantzun egokia. Ea zein taldek amaitzen duen lehenengo!
- Talde osoaren aurrean azaldu ea nolako galderak egokitu zaizkizuen; ea argiak ziren, testuaren ideia garrantzitsuak ulertzeko baliagarriak ziren; haurrari ulertzen laguntzeko egokiak iruditu zaizkizuen...

GALDETU BAI, BAINA NOLA GALDETU?

Haurrei oso lagungarri zaizkie geure galderak; batez ere, testuak zailak direnean. Baina kontuan hartu behar dugu galdetzeko era asko dagoela eta galdera guztiak ez direla berdinak. Tentuz ibili!

- Amaitzeko, egizue haurrak biharko azalpenean gogoan izan beharreko puntu nagusien zerrenda GALDERAK EGINEZ. Kontuan izan berak ezin izango duela buruan izan bospasei ideia baino gehiago. Ea talde guztiak bat zatozten zerrenda egitean!

-
-
-

3

Gorbeiri buruzko testua irakurri –"Ihesi, Euskal Herriko Gida". Bestela, jo www.argia.com orrira–, eta, ulertzeaz gain, laburtuta ere eraman behar du geure haurrak eskolara. Laburpen horren helburuak fitxa honetan idatzirik eman dizkio irakasleak haurrari.

LANAREN HELBURUAK

- Gure ingurunea hobeto ezagutzea.
- Txangoa egin aurretik zure klasekoek zerbait jakitea bisitatuko ditugun lekuei buruz.
- Ahal izanez gero, klasekoen interesa lortzea bertara joateko.



- Helburuak horiek badira, eztabaidatu jarraian dituzun jokabideak egokiak izango diren ala ez.

- Bereziki saiatu beharko du informaziorik deigarriena jasotzen.
- Orografiari, faunari, landarediari... lotutako hiztegiari erreparatu beharko dio.
- Saiatu behar du ahalik eta xehetasunik gehien jasotzen.
- Ez da beharrezkoa laburpen-testua gehiegi orraztea; ikaskideei azaltzeko baino ez du erabiliko.

- Irakasleak testua laburtzean hiztegia zaintzeko adierazi die hurrei. Era berean, esan die hiztegian begiratzeko testuan aurkitzen dituzten hitz ezezagunak, eta laburpenean saia daitezela animalien, landareen, tokien... izenak txukun erabiltzen euskaraz.
- Lagungarri gisa, jarraian duzuen ariketa eman die, testua irakurri aurretik egiteko. Lotu behar dituzte hitzak eta definizioak. Laguntza eskatuko balizu, asmatuko al zenuke hitzak eta definizioak lotzen?

1. ITURBURU
2. MENDATE
3. BAILARA
4. ARROILA
5. UR-JAUZI
6. SANTUTEGI
7. BIDEZIDOR
8. UHARKA
9. SAIHESBIDE
10. KARST
11. MENDIZERRA

- a) Mendiarteko bitarte sakona.
- b) Mendia errepidez edo kaminoz igarotzeko pasabidea.
- c) Mendi edo leku garaien artean dagoen lurraldea.
- d) Batik bat kareharrien eta, neurri txikiagoan, beste arroken disoluzioz sortzen den topografi mota.
- e) Ibaian urak bere bidean bare-bare aurrera egin beharrean, bat-batean goitik behera amiltzea.
- f) Zerbaiten hasierako edo sorrerako unea edo tokia, adibidez ibai batena.
- g) Bidetxo meharra, estua, eskuarki norabaiteko bidea laburrago bihurtzeko erabiltzen dena.
- h) Ibaiko urak joanaren joanez edota gizakiaren eraginez, ebakitako erretena.
- i) Erdiko norabidetik aldentzen den alboko bidea.
- j) Kristauak biltzeko Jainkoaren, Ama Birjinaren edota sailduren baten izenez eraikitako eliza.
- k) Mendikatea baino txikiagoa izan ohi den segidako mendiz osatutako lur-saila.

- Taldeka jarri. Irakurri testuaren ataletako bat (irakasleak emango dizu), eta azpimarratu bertan hurrak egin beharreko lanerako garrantzitsuak izan daitezkeen hitzak.

HITZ GAKOAK

- Bilatu definizioak hiztegi batean. Talde osoaren aurrean irakurri hautatu dituzuen hitzen definizioak; ea besteek asmatzen duten zein den hitza!

- Bestalde, laburpen eraginkorrak egiteko, irakasleak hainbat aholku gogorarazi dizkie haurrei, eta, horrezaz gain, eskatu die taula batean jartzeko gogoan izan beharreko hainbat ohar.
- Zuen haurrak egin du lan hori, baina baten bat ez du zutabe egokian jarri. Esan zeinetan nahastu den.

| EZ | BAI |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> • Ez azpimarratu besterik gabe ulertzen duzuna edo ulertzen ez duzuna. • Ez kendu adibide edo azalpen guztiak; bestela, oso zaila izango da testua ulertzea. • Azpimarratu egin behar duzun lanerako interesgarriak diren ideiak. | <ul style="list-style-type: none"> • Testu-zati bat oso interesgarria denean, azaldu zure hitzetan; estilo orokorrenekin bat etorri behar du. • Kopiatu testu-zatiak hitzez hitz. • Zer jarri eta zer ez jarri erabakitzeko, kontuan hartu beti norentzat eta zertarako den egin behar duzun laburpena. |

- Oinarrizko irizpideak argituta, haurrak irakurtzen hasi behar du. Funtsezko ideiak eta datuak irakurri ahala azpimarratuko ditu. Taldeka jarri, eta irakurri berriro egokitu zaizuen zatia; ZER AZPIMARRATUKO ZENUKETE ZEUEK? ZERGATIK?
- Trukatu azpimarrak dituzten testu-zatiak beste taldekoekin. Aztertu egindako lana, eta adierazi, zeuen ustez, lana ondo egin duten ala ez.
- Gelako hiru haurrek, laburpenari hasiera emateko, pasarte hauek idatzi dituzte.
 - Taldeka, eztabaidatu zein iruditzen zaizuen egokiena, lanaren helburuak kontuan hartuta. Arrazoitu zeuen erantzuna.

1) Euskal Herriko lurretan aurki genitzakeen ur-jauzi guztien artean, zalantzarik gabe, Nerbioikoa eta Guiurikoa dira ikusgarrienetakoak. Biak Araban ikusiko ditugu, eta, gainera, bata bestetik hurbil samar. Mirari natural horiei probetxurik handiena ateratzeko, ibilbidea bera euri-garaian edo euria egin ostean burutzea gomendatzen dizuegu, eta Gorbeia gaineko gurutzera bisitatzeke garai aproposa izan daiteke.

Urduñako mendate izugarriera igotzen hasiko gara, tarteka panoramika zoragarriak eskainiko dizkigunera. Bidexka zabala txarto asfaltatua dago, bidezulo handiekin; beraz, oso kontuz joan behar da. Lehenbizi, ezkerrean, Urduñako bailararen ikuspegi izugarria izango duzue. Dena den, bidegurutzera itzuli eta kotxez abiatzen bazarete ere, iristean ikusiko duzuenaren aurrean –batez ere, euri-garaia bada eta ur-jauzia sortu bada–, erabat txunditurik geratuko zarete.....

2) Gure taldeak Nerbioiren iturburura eta Gorbeia Parke Naturalera joatea proposatu nahi dizue. Izugarrizko ur-jauziak ikusiko ditugu bertan, eta, batez ere, udaberrian da paregabea. Benetan gozatuko dugu, bertara bagoaz!

Hara iristeko, Urduñako mendate izugarria pasa, eta, lehendabizi, ezkerretara, Urduñako bailararen ikuspegi izugarria izango dugu. Bidegurutzera itzuli, eta handik bi kilometrora Nerbioi ibaiaren arroila-iturburu ederra ikusiko dugu, aho zabalik geratzeko modukoa.

Bidea ezkerretara hartu ordez eskuinerantz hartuta, arroila-paisaia ikusgarriak ikusiko ditugu

.....

3) Proposatutako Nerbioiren iturburura eta Gorbeia Parke Naturalera joatea. Bi leku hauek Araban daude; zehazki, Bizkaiaren

mugatik gertu, eta ur-jauzi izugarriak eta paraje natural ederrak aurkituko ditugu bertan; udaberrian, batez ere. Hara iristeko, Urduñako mendatea pasa behar dugu, eta bide horretan ere zer ikusia izango dugu: adibidez, mendatea pasa eta ezkerretara Urduñako bailararen ikuspegi zoragarria, eta, bide nagusian aurreraxeago, Nerbioi ibaiaren arroila-iturburua ikusiko dugu, hau da, Nerbioi ibaia jaiotzen den lekua. Izugarri polita da, eta benetan merezi du ikustea.

Aurrera joanda, Gorbeia ikusten hasiko gara, eta kilometro gutxira, Guiriko ur-jauzira hurbilduko gara.....




- Hementxe dituzu irakasleak bakoitzari egin dizkion oharra; zein dagokio zeini?

A) Oso ondo zoaz. Testu interesgarria egiten ari zara, eta, gainera, saiatzan ari zara lokailuak eta horrelakoak erabiltzen. Zure ikaskideek ondo irudikatuko dute deskribatzen ari zaren paisaia.

B) Ondo ari zara ikaskideak animatzen testuan zehar, baina, agian, jatorrizko testuaren oso antzekoa da. Gogoratu helburua ez dela bakoitza bere aldetik joatea, autobusean denok joatea baizik, eta, beraz, ez da hain garrantzitsua ibilbide zehatza jartzea.

C) Esaldiak hitzez hitz ari zara kopiatzen, eta ez diozu ondo erreparatu lanaren helburuari. Paragrafo bakoitzetik zerbait hartu beharrean, kontuan izan klasekoak animatzea dela garrantzitsuena eta paisaia gutxi gorabehera nolakoa den adieraztea.

- Laburpenak ondo egiteko hainbat aholku eman ditugu. Jarraian, saiatu laburbiltzen.



- Taldeka, egin zeuei egokitutako testu-zatiaren laburpena. Jarraitu emandako aholkuei.
- Trukatu egindako lanak beste taldekoekin. Egin irakasleak haurrei egin dienen moduko iruzkina. Kontuan hartu jaso berri dituzuen irizpideak.

4

Testu guztiek egitura jakin bat dute; testuak ondo eta azkar ulertzeko, funtsezkoa da testuaren egitura segitzen jakitea. Horregatik, irakasleek askotan eskatzen diete haurrei testuen eskemak egiteko, besteak beste, ikasitako gauzak gogoratzeko ere oso lagungarriak direlako.

Horrelako lan bat ARAMAIO herriari buruz egiteko proposatu die EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedian dagoen informazioarekin.

- Geure haurrak Aramaio herriari buruzko fitxa bat egin behar du, eta, horregatik, daturik esanguratsuenak jaso behar ditu.
- Jarri taldeka, eta pentsatu zein atal izango lituzkeen fitxa horrek eta nola antolatuko zenuketen.



- Aukera baduzue, jo EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopediara eta bilatu Aramaio herriari buruzko informazioa. Horren kopia bat irakasleak emango dizu. Alderatu informazioa banatzeko erabili duten eskema eta zeuek prestatutako fitxa. Berdintsuak dira?



- Haurrek testutik daturik garrantzitsuenak hautatu behar dituzte, eta fitxara eraman. Hona hemen haur batek pentsatu duena eginkizun hau egin aurretik, bitartean eta irakaslearen iruzkina entzun ondoren:

1. Zer egin behar dut?
Eskema bat? A zer lana!
Gainera, zertarako? Ez dute ezertarako balio!

2. Ideia batzuk azpimarratuko ditut, eta kito! Zerrendatuko ditut, eta, gero, klasean irakurriko ditut... Hau ez dut ulertzen... Beno, igual dio! Inportantea dirudi, eta jarri egingo dut.

3. Irakasleak esan dit ez dudala ondo azaldu, eskema ez nuela ondo eginda. Eta nola jakingo dut nik nola egin? Segur aski, besteek berdin egingo zuten! Irakasle honek begitan hartu nau!

- Zeuen seme-alabek antzera jokatu ohi dutela uste al duzue? Zuzen dabilela uste al duzue?

- Haurrei kosta egiten zaie ulertzea zertarako egin behar izaten dituzten eskemak; ziur asko, eskemak egitea zaila egiten zaielako. Haur hori, adibidez, ez dago oso motibatuta; segur aski, lehenago ere antzeko lanetan ez duelako jakin zer egin. Taldeka jarrita, haurra motibatuzeko ideiak proposatu. Zerk "funtzionatzen" du zeuen hurrekin?

Badakit oso nekosoia egiten zaizula eskemak egitea, baina...

- Irakasleak esan omen dio azalpena ez zaiola ondo atera; haurrak pentsatu du irakasleak begitan hartua duela. Segur aski, akatsa beste nonbait egongo da.
 - Hauxe duzue ikasle honek egin duen zerrenda:

Idea batzuk azpimarratuko ditut, eta kito! Zerrendatuko ditut, eta, gero, klasean irakurriko ditut... Hau ez dut ulertzen... Beno, igual dio! Inportantea dirudi, eta jarri egingo dut.

- Biztanleak: 1.312
- Azalera: 73.3
- Dentsitatea: 17.9
- Altitudea hirigunean: 301
- Euskaldunak: %86. Ia euskaldunak: %9
- Bizkaiko eta Gipuzkoako mugan.
- Leku menditsua.
- Abeltzaintza, nekazaritza eta industria txikia.
- Erdiak baino gehiagok industrian, laurdenak zerbitzuetan.
- Biztanle-kopurua behera.
- Erdi Aroan Biasteriko koadrilako ermandade
- Aramaio, Bizkaiko jaurerrikoa.
- XV. mendean Araban gelditu.
- 1443an Pedro Abendañok herria erre.
- Butroeko jaunak hartu zuen, eta herritarrak kexatu ziren.
- 1606an ibarra konterri bilakatu.
- Ibarako San Martin elizak plano oktagonala eta hormak manposteriaz
- Sagrarioren atea Alonso Idiakez Butroekoaren oparia, 1609an Erroman eginikoa.

- Egin duen zerrenda praktikoa al da, ahoz azalpen bat egiteko? Taldetxotan zerrendatu aurkitzen dizkiozuen arazoak. Ondoren, besteenak entzun. Hori guztia kontuan izanda, prestatu azalpen bat, haur horri ulertarazteko zer den gaizki egin duena.

Begitan? Harritzen naiz.
Berak estimu handia dizu, baina ezin dizu ontzat eman erdipurdiko lanik. Ikus dezagun nola dagoen prestatu zenuen eskema!

Nik fitxa honetatik gauza batzuk kendu egingo nituzke....

-
-

Zerrendako zenbait gauza ez daude ondo zehaztuta.
Adibidez....

-
-

Datu batzuk oso nahasi daude. Adibidez, pertsonaia ospetsuei buruzko datuak.

-
-

Fitxa bera ere beste modu batera antolatuko nuke:

- Lehenbizi...
- Gero...

- Orraztu ezazue haurrak egindako fitxa. Saiatu harrapatu dituzuen huts guztiak konpontzen zeuen proposamen berrituan.

- Dena dela, haurrak, beharbada, gustukoago izango du beste ereduren bat. Horregatik, entzun zer dioen Aramaioko Alkateak.
 - Programaren izenburua hauxe da: HIRU ARRAZOI ZURE HERRIA BISITATZEKO. Honez gero, baduzue herri horri buruzko hainbat datu; zein hiru arrazoi emango zenituzkete zuek hara joateko?
 - Orain entzun alkatearen azalpena, eta bete honako eskema:

–Herriaren aurkezpena:

- Non dagoen kokatua.
- Biztanle-kopurua eta euskaldun-kopurua.
- Ekonomiaren oinarria.

–Hiru arrazoiak:

- 1.
- 2.
- 3.

- Lehen aztertu dugun eskema eta azken hau ikusita, zein izan daiteke erakargarriago? Zein izan daiteke egokiena, ikaskideei informazioa emateko? Zergatik?
- Zer proposa diezaiokegu arazoak dituen haur horri, klaseko lagunen aurrean egin beharreko aurkezpena arrakastatsua izan dadin? Laburbildu aholkuak.

NOLA ATERA ESKEMAK TESTUETATIK? AHOLKUAK

1. Lehendabizi, testua gainetik irakurri, eta ikusi informazioa zenbat ataletan dagoen antolatua.
2.
3.

NOLAKOA DA GEURE INGURUA?

Ataza honetan gutunen inguruan arituko gara: nola hasi, zer esan, nola bukatu... Gutunak, oro har, beste idazki batzuk baino gustukoago izaten dituzte haurrek; testu hauek helburu argiagoa izaten dute, eta, gainera, beren esperientzia, kezka eta kontuei buruz hitz egiteko aukera ematen diete.

Oraingoan, geure haurren gelakoek truke-programa batean hartu nahi dute parte. Helburua da Euskal Herriko hainbat leku ezagutzea eta beste eskualdeetako haur euskaldunekin harremanak izatea. Geure haurrak beste baten familiarekin emango du astebete; eta hark geurekin beste hainbeste. Harremanetan jartzeko, haurrak gutun bat idatziko dio besteari, geure familiaren berri eman, herria nolakoa den adierazi eta aste horretarako planak kontatzeko.



1

- Hitz egin taldean galdera hauei buruz:
 - Inoiz parte hartu al duzu horrelako trukeetan? Hala bada, adierazi zeure esperientzia. Zein dira honelako esperientzien alderdi pozgarriak? Arazorik sortzen ote da?
 - Zeure etxean haur bat hartzekotan, zer jakin nahi zenuke etorriko zaizun haurrari eta bere familiari buruz?
 - Zer jakin nahi zenuke zeure haurra joango den herriaz?
- Haurrak eskatu dizue ideiak emateko gutunean jarri beharrekoaz. Egin galdera-zerrenda bat, gutuna prestatzen laguntzeko. Antolatu galderak gaika:

- Zer gustatzen zaizu jatea?
- Zer zaletasun dituzu?

- Irakasleek, orientabide gisa, bi fitxa eman dizkiete.
 - Hurrek lehen fitxan bildu dituzte gutuna idazten jarri aurretik kontuan hartu beharreko hainbat gauza. Zergatik uste duzu izan daitekeela garrantzitsua puntu horien inguruan hausnartzea, gutuna idazten hasi aurretik?

NOLA HASI GUTUN BAT PRESTATZEN?
Galdera batzuk egin behar dizkiogu geure buruari:
 a) Nori bidaliko diogu?
 b) Zer lortu nahi dugu gutunaren bidez?
 c) Zer kontatuko diot?


Irakasleek, orientabide gisa, bi fitxa eman dizkiete.

- Eman dezagun haurrak ondorengo zalantza adierazten dizula; zer erantzungo zenioke?

Nola erantzungo diet galdera horiei, oraindik haurra eta bere familia ezagutzen ez badituz? Zertarako, gainera? Irakasle hauek ez dakite zer asmatu!

- Arrazoi duzu; zuk idatzi zerbait herriaz eta zeure familiaz idazlan bat izango balitz bezala, eta kitto!
- Ez maitea! Galdera horiek zeure irudimena pizteko dira: nolakoa nahi duzun izatea haur hori, familia hori...
- Ez dituzu ezagutzen, noski! Baina ez zaio berdin idazten ezagun edo ezezagunei; ez da berdin idazten zerbait eskatzeko edota zerbait erreklamatzeko. Hasi baino lehen, hori guztia hartu beharko duzu kontuan.

- Bigarren fitxan gutuna antolatzeke bi eskema eman dizkiete haurrei, bat aukera dezaten. Zein gomendatuko zenioke haurrari? Zergatik?



GUTUNAK PRESTATZEKO AHOLKUAK:

- Ondo definitu norentzakoa eta helburua.
- Pentsatu adierazi nahi ditugun ideiak, eta, gutun luzea bada, idatzi tauletan, zerrendetan...
- Pentsatu gutuna egiteko eskema bat.
- Ez ahaztu gutunek sarrera/amaiera berezia izaten dutela.

2

Haurrak orain badaki zer kontatuko dion lagun berriari eta nola egingo duen, baina oraindik ez da hasi. Gutuna idazteko, irakasleak oinarrizko egitura bat eman dio, baina ez daki oso ondo nola aplikatu.

- Hementxe duzu haurrak ikaskide batzuekin prestatu duena. Zer iruditzen zaizue? Txukun geldituko zaiola uste al duzue?

DATA

AGURRA:

SARRERA: esan zein zaren eta zer kontatuko diozun gutunean.

MAMIA: azaldu zure familia eta herria nolakoak diren, eta txango batzuk proposatu.

LABURPENA: kontatu diozuna labur-labur jarri, gauza onak azpimarratuz.

AZKEN AGURRA: animatu geuregana etortzera, esan zein ondo pasako duen eta agurra idatzi.

SINADURA

- Jarraian dituzue irakasleak gutuna idazteko eman dien errezeta. Taldeka, berraztertu haurren egitas-moa, eta identifikatu dituen hutsak eta, adibidearen moduan, egin haurrei eman beharreko gomendioen zerrenda.

GUTUN LUZEAK EGITEKO ERREZETA BAT

1. Data jarri.
2. Sarrerako agurra idatzi.
3. Hasteko, esan zein zaren eta zertarako idazten diozun gutuna.
4. Kontatu mamian esan beharrekoa, beti egitura jakin bati segituz.
5. Animatu, gonbidatu, proposatu,... gutunaren helburuaren arabera.
6. Azken agurra.

| ZAILTASUNAK | PROPOSAMENAK |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> • Ez daki nola agurtu. • Ez daki oso garbi zer esan hasieran, sarrera gisa. | <ul style="list-style-type: none"> • Kaixo, laguna! • Esango diogu esateko zein eskolatakoa den, zein herritakoa, bera dela trukerako kidea eta azaldu nahi diola gutunean nolakoak garen, zer ohitura ditugun eta nolakoa den gure herria. |

- Hementxe duzue, adibide gisa, gutun bat, baina pasarte batzuk ezabatuta ditu; osa ezazue zeuen herriari dagozkion datuak erabiliz.

02/4/12

Kaixo, Edorta,

Estibalitz naiz, _____ ko zure laguna. Ni izango naiz zurekin trukea egingo dudana, eta benetan zu ezagutzeko irrikan nago. Kontatuko dizut gutxi gorabehera nolakoa den nire familia eta zu etortzen zarenerako pentsatu dugun plana.

Nire familia gustatuko zaizu. Gurasoak oso jatorrak dira, eta, batzuetan, errietan egiten didate, ez diedalako kasurik egiten, baina bromak egiten dituzte, eta horrela. Bi anai-arreba ditut; Koldo, nagusia, 15 urtekoa da, eta oso jenio txarra dauka. Ez zaio gustatzen bere gauzetan ibiltzea, baina ni saltsero xamarra naiz, eta, azkenean, builaka ibiltzen gara; baina lasai, zu etortzean, bakean utziko dut. Idoia da txikiena, 5 urte ditu, eta jolastu eta jolastu besterik ez du nahi. Ba, ez gaitu molestatuko! Gure herria nolakoa den jakin nahiko duzu. Ba,

Baina, dena ondo ezagutzeko, txango batzuk prestatu ditugu, ea zer iruditzen zaizkizun!

Dena den, zuk beste zerbait egin nahi baduzu, esan lasai, eta egingo dugu. Gainera, ikusi behar da nolako eguraldia dugun!

Beno, ba, orduan, hori, antzeman dezakezu nolakoak garen. Nik ere jakin nahi nuke zerbait zuetaz eta zuen herriari buruz. Ea noiz bidaltzen didazun gutunen bat! Uste dut oso ondo konponduko garela elkarrekin.

Ba, hori, esandakoa. Besarkada bero bat, eta ea idazten didazun zuk ere! Laster arte.

Esti

- Trukatu egindako gutunak, eta orraztu hobetu daitezkeen pasarteak.

3

Haurrek gutun hau bidali egingo dutenez, txukun idatzita egon behar du, eta, ahal bada, akatsik gabe. Horregatik, irakasleek esan diete arretaz birpasatzeko idatzitakoa. Lana behar bezala egiteko, fitxa bat erabiliko dute. Fitxa hori ikasleek berek egingo dute. Horrela, bada, bakoitzak eskolan bururatu zitzaizkion irizpideak jarri zituen, eta denen artean zerrenda bateratu bat egin zuten.

- Zuek zeuek, ikaskideen lana orraztean, zeri erreparatu diozue, nagusiki? Gramatikari? Forma orokorrari? Ideien azalpenari? Hiztegiari? Nolakoak dira, gehienbat, zuzendu dituzuen akatsak?
- Hona hemen ikasleek osatu zuten fitxa. Jarri galdera bakoitza dagokion lekuan.



1. Nolako hizkuntz egiturak erabili dituzu? Sinpleak, konplexuak, zehatzak...
2. Kontuan izan al duzu nori bidali behar diozun gutuna?
3. Esaldien arteko jostera erreparatu duzu? Falta duzu -LA, -N edo antzekorik?
4. Begiratu al duzu ea berriro egin dituzun normalean egiten dituzun akatsak?
Aldez aurretik prestatu duzun eskemari segitu diozu?
5. Bereiztu al dituzu ideiak paragrafoetan?
6. Erabili al duzu atalak josteko egiturarik? Zein?
7. Garbi geratu al da gutunarekin lortu nahi duzun helburua?
8. Egokiak al dira egoera horretarako?
9. Gutunari jarri al dizkiozu data eta agurrak?
10. Paragrafoak luzeegiak/motzegiak egin al dituzu? Aldatu behar al duzu ezer alde horretatik?
11. Ortografia erreparatu al duzu? Deklinabidea eta aditza ondo begiratu dituzu (singular/plural, mugagabea/mugatua, aditz-erregimena...)?

| | |
|--------------------------|--|
| PLANGINTZA: | |
| GUTUN-FORMATOA | |
| PARAGRAFO- -BANAKETA: | |
| JOSKERA: | |
| HIZKUNTZ TRESNAK: | |
| ZUZENTASUNA: | |

- Hartu idatzi duzuen gutuna. Ikaskideek egindako zuzenketez gain, ikusten al duzue orain hobetu daitekeen beste ezer? Hitz egin horri buruz.

ERREPASOA FUNTSEZKOA DA

Geure lana erreparasatuz dezente hobe dezakegu, baina jakin egin behar zer eta nola erreparasatu. Proposatutako dugun fitxa testu gehienetan erabil daiteke; hori bai, interesgarriena litzateke nork berea izatea, menderatzen dituen alderdiak kendu eta kosta egiten zaiona azpimarratuz.

HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

Txangoak eta bidaiak oso lotuta daude matematikekin, eta edozein irteera aitzakia ona izan daiteke matematikaren alderdiren bat edo beste jorrazteko. Material osagarri honen helburua da –bidaiak direla eta– joko desberdinak ikustea eta egitea; baina, beti ere, ez ahaztu irudimen pixka batekin zuek zeuek ere antzekoak asma ditzakezuela.

1

- Ibilaldiren bat antolatu nahi dugu Euskal Herrian zehar astebururako, baina, jakina, eguraldiak zer esan handia dauka. Eguraldiaren mapak interpretatu behar ditugu, beraz; eta, horretarako, eguraldiaren inguruko azalpenak ulertu.




- Egiazta itzazu beheko esaldiak eguraldi-mapa behatuz. Esaldiak egia badio, ezkerreko zutabeko letra biribildu; gezurra badio, berriz, biribildu eskuinekoa. Sortuko den hitzak berak esango dizu zuzen ala oker egin duzun.

1. Euskal Herriko hegoaldean egun eguzkitsua izango dute
2. Arabako hegoaldean zeru lainotsu eta goibela
3. Ekaitzak ugariak izango dira Bizkaiko iparraldean
4. Kostaldean zerua estalia egongo da egunean zehar
5. Kostaldean iparraldeko ekaitz-haizeak indartsu joko du
6. Nafarroako iparraldean ekaitzak joko du
7. Itsasaldean mendebaldeko haize leunak joko du
8. Barnealde osoan euri-zaparrada ugariak izango dira



- Asmatuko al zenuke ondorengo pista hauekin zein izan ziren atzo euskal hiriburuetako tenperaturak goizeko zortzietan eta arratsaldeko ordu bietan?



- Goizeko zortzietan, tenperaturarik baxuena Gasteizen eta Bilbon izan zen.
- Ordu berean, Bilboko eta Gasteizko tenperaturen batura 30 zen.
- Iruñeko tenperatura, goizean, Bilbokoa baino gradu bat altuagoa zen.
- Baionan eta Donostian tenperatura bera izan zuten goizean.
- Donostiako tenperatura 28 gradukoa zen arratsaldeko ordu bietan, goizeko zortzietan baino hamar gradu altuagoa.
- Arratsaldeko ordu bietan, bost hiriburuetako tenperaturarik altuena Iruñekoa izan zen.
- Tenperaturarik altuena Bilbon eta Gasteizen goizeko zortzietan jasotako tenperaturen batura da.
- Arratsaldeko ordu bietan Bilboko eta Gasteizko tenperatura Iruñekoa baino baxuagoa eta Donostiakoa baino altuagoa zen.
- Baionan goizeko eta arratsaldeko tenperaturen arteko aldea 7 gradukoa izan zen.



| | Bilbo | Iruñea | Baiona | Donostia | Gasteiz |
|-------|-------|--------|--------|----------|---------|
| 08:00 | | | | | |
| 14:00 | | | | | |

- Gaurko egunkariko mapari begira, sortuko al duzue haurrentzako antzeko beste jokoren bat? Taldetxotan elkartu, eta egin EGIA/GEZURRA erako jolas bat, edo LOGIKA-TAULA bat, edo bururatzten zaizuen beste edozein.

| ETAPA | EGUNA | ZER IKUSI/EGIN (ekintza nagusia) |
|-------|----------------|----------------------------------|
| | ostegun santua | |
| | ostiral santua | |
| | larunbata | |
| | igandea | |
| | astelehena | |

- Zuen seme-alabekin ere antzekoak egin ditzakezue; adibidez, egin duzuen taulatik ezabatu egun bateko plana, edo ekintza nagusia, eta zuen haurrarekin batera osatu; edo egun zehatz baterako plana zehaztu:

| ORDUA | ZER IKUSI/EGIN (ekintza nagusia) |
|-------------|----------------------------------|
| 07:30 | jaiki, gosaldu eta dena prestatu |
| 08:30 |-ra abiatu |
| 09:00-11:00 | ikusi eta bisitatu |
| | |
| | |

3

Adin honetan planoak erabiltzen eta azaltzen jakitea ere garrantzitsua da, haurren heziketarako. Jarraian, bi eginkizun proposatuko dizkizuegu, berauek lantzeko:

- Marraztu planoaren gainean Etxeberritarrek jarraitutako bidea.

Autoa udaletxe aurreko aparkalekuan utzi ondoren, Etxeberritarrek bainuetxera joan dira hondartzarako bidetik. Bainuetxean itsasoko ur-bainu bat hartu eta gero, paseatzera joan dira lasai-lasai.

Lehendabizi, Kasino Zaharraren aurretik pasatu dira, eta eskuineko kalea hartu dute, itsasbazterreko dorretxe zaharra ikusteko. Segidan, eliza inguratu eta akuariora zuzendu dira. Akuarioa bisitatu eta gero, bidezidor batek farora eraman ditu, eta, faroaren azpitik pasatzen den pasealekuari jarraituz, portura iritsi dira. Portuko aparkalekura iristean, eskuinera doan kaian aurrera abiatu, eta, zubitxo bat igaro ondoren, ontziralakura iritsi dira. Azkenik, ontziralakuan txalupa bat hartu, eta itsasoz hondartzaraino joan dira Etxeberritarrek.



- Har ezazue zeuen herriko plano (edo inguruko hiriren batekoa), eta markatu trukean hartuko duzuen hurrak herria hobeto ezagutzeko egin dezakeen ibilbideren bat. Ondoren, azaldu taldeko kideei. Herri berekoak bazarete, inguruko herrietako mapak har ditzakezue, eta zenbait ibilbide prestatu.
- Nahi izanez gero, aukeratu hiribururen bateko plano, eta zuen hurrarekin batera prestatu ibilbideren bat, ikusiko dituzuen gauzarik aipagarrienak seinalatuz eta egingo dituzuen ekintzak taula batean jarritz (2. puntuko ariketan bezala).

4

Kontuak ateratzen hasita, zenbaki asko agertzen zaizkigu irteerak eta oporrak direla eta; adibidez, aurrekontuak egiten ari garenean, nora joan erabakitzeke: hotelak, kanpinak, aterpeak... Hementxe dituzue oporrak pasatzeko bost aukera:

Pasa itzazu egun batzuk **kanpoan!**

Opor hauetan etxetik kanpo egun batzuk pasatu nahi ditugu. Bidai agentzia batean izan gara, eta zalantzan gaude bost aukera hauen artean.



Atsedeen Eder
2. mailako kanpina
Hondartzatik 20 m-ra
HENDAIA
Pertsonako:
- 420 pta/eguneko
- 6 urtetik beherako haurrek erdia



Goikalde
Apartamentuak
Hondartzatik 200 m-ra
ZARAUZ
Pertsonako:
- 4.300 pta/eguneko
- 10 urtetik beherako haurrek erdia



Itsas Gain
Hotela ****
Hondartzatik 50 m-ra
LEKEITIO
Pertsonako:
- 8.550 pta/eguneko
- 14 urtetik beherako haurrek erdia



Zuhaizti
1. mailako kanpina
LIZARRA
Pertsonako:
- 580 pta/eguneko



Baso Zabal
Hotela **
LEITZA
Pertsonako:
- 4.700 pta/eguneko
- 12 urtetik beherako haurrek erdia

Marka itzazue gurutze batez aukera bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak:

| | Kafetegia | Jateitea | Aparkalekua | Piszina | Txakurrak Onartzen dira | Telebista gelan | Antena parabolikoa | Tenisa | Dantzalekua | Telefonoa gelan | Bainua gelan | Ileapaindegia | Supermerkatua |
|------------------------|-----------|----------|-------------|---------|-------------------------|-----------------|--------------------|--------|-------------|-----------------|--------------|---------------|---------------|
| Atsedeen Eder kanpina | | | | | | | | | | | | | |
| Goikalde apartamentuak | | | | | | | | | | | | | |
| Itsas Gain hotela | | | | | | | | | | | | | |
| Baso Zabal hotela | | | | | | | | | | | | | |
| Zuhaizti kanpina | | | | | | | | | | | | | |

Azter ditzagun bost aukera horiek:

- Bost leku horietatik, zein daude kostaldean?
- Zein dago hondartzatik gertuen?
- Zein hotelek du kategoriarik handiena?
- Txakurra eraman nahi izanez gero, nora joan zaitezke?
- Toki horietatik, zein dago zure herritik gertuen?



Ezagutzen ditugun 3 familiek egun batzuk pasatu dituzte kanpoan.



Otermin sendia

- aita
- ama
- Miren, 13 urteko alaba
- Jon, 6 urteko semea



Iriarte sendia

- aita
- ama
- aitona
- Jokin, 6 urteko semea
- Eider, 2 urteko alaba



Lasa sendia

- aita
- ama
- Nekane, 8 urteko alaba

Otermintarrek aste bat pasatu dute Atsedean Eder kanpinuean. Zenbat ordaindu behar izan dute?

Zenbat ordaindu behar izan dute Lasatarrek Goikalde apartamentuetan igaro dituzten 10 egunak?

Iriarte sendiak 5 egun pasatu dituzte Leitzako hotelean. Zenbat ordaindu dute?



Otermin, Iriarte eta Lasatarrek egin dute euren aukera. Eta zuk? 45. orrialdeko bost toki horietatik zein duzu gogokoena? Zergatik?
Zein bizi zarete etxean?

Aukeratu duzun tokian astebete pasatuz gero, zenbat ordainduko zenukete?

- Bisita ezazue bidai agentzia bat, eta bildu bisitatu nahi zenuketen edozein herritako hotelen informazioa. Prezioak kontuan hartuta, egin antzeko jolasen bat, eta aurkeztu taldeko kideei. Ea zenbat eragiketa matematiko proposatzen dituzuen hotelak konparatuz!

5

Azkenik, atera gaitzen Euskal Herritik, eta Britainia Handiraino joan! Britainia Handian berezi xamarrak dira neurriekin, eta horrek ere aitzakia ona eskaintzen digu, jolas matematikoetan murgiltzeko.

- Taldetxotan jarrita, hainbat eragiketa egin beharko dituzue, ondorengo egoera kontuan hartuta. Bukatzen duzuenean, konparatu gainontzeko ikaskideekin ea zenbakiak berdin atera dituzuen. "Mikel, ikastolan ikasi duen ingelesa praktikatu nahian, Britainia Handira joan da hilabeterako, Pottery familiarekin udara pasatzera."

Uztaileko bigarren igandean uhartera joan ziren, eta han Mikelek bitxikeria batzuk erostea pentsatu zuen etxekoentzat. Zer erosi erabakitzeko, kalkulua egin behar izan zituen, dendariak prezioak libra esterlinatan ematen baitzizkion, eta mutilak merkeak ala garestiak ziren jakiteko pezetara aldatu behar zituen. Azkenik, opari hauek hartu zituen:

aitarentzat egurrezko pipa
amarentzat maskorrez egini-
ko koilarea
arrebarentzat lepoko zapia



Orain kalkula ezazu eurotan (ez pezetatan) Mikelek gastatu duena.
Kalkulua egin ahal izateko, hona hemen libra esterlinak euroarekiko duen balioa:

$$\text{Euro } 1 = 0,6146 \text{ libra esterlina (2001eko uztaileko datua)}$$

- Oraindik egokitzen ari gara euroarekin, baina geure haurrari azaldu behar diogu euroa eta pezeta zertan desberdintzen diren. Pentsatu taldetxotan zein izan daitezkeen haurrarentzat produkturik adierazgarrienak, pezeta eta euroa konparatzeko –adibidez, ogiaren prezioa–.

GOGORATU: EURO 1 = 166,386 PEZETA

| PRODUKTUA | PREZIOA PEZETATAN | PREZIOA EUROTAN |
|-----------|-------------------|-----------------|
| | | |

6

Jolas dezente ikusi eta egin ditugu jadanik irteeren aitzakiarekin, baina oraindik orain matematikaren arlo garrantzitsuak ditugu jolas bihurtzeko.

- ELHUYAR argitaletxeak matematika lantzeko CD-ROM bat du salgai: PIRATEKIN MATEMATIKAREN MUNDUAN. Hementxe dituzue proposatzen dituen jolasak; gainetik irakurri, eta taldean hitz egin:
 - Ezagutzen al duzue material hau?
 - Zer iruditzen zaizue, azalpenak irakurri ondoren?
 - Interesgarria iruditzen al zaizue zeuen haurrentzat?

Piratekin MATEMATIKAREN munduan

Hau duzu matematikaren mundua abian jartzeko puntua. Hemendik hasiko dituzu zure abenturak piraten laguntzaz. Begira nora joan zintezkeen:

Apalean dagoen dragoian klik egin eginez, Ness lakura joango zara, eta aztekek ezkutaturik duten altxorra topatu nahi baduzu, egin klik apaleko beste irudian. Pazko uharteraino ere joan zaitezke mahai gaineko buruan klik eginez, edo izarretan irudiak aurkitu betaurrekoa erabiliz. Inora bidaiatzeko asmorik ez baduzu, begira barrikan zer dagoen! A, eta gure itsasontzian zorabiatzen bazara, badakizu, sabaileihotik ihes egin!

NESS LAKUKO IRUDIAK

Bi ariketa-mota egin ditzakezu Ness lakuan. Lehenengo mailan, piezak piratak eskatu bezala hartu eta kokatu beharko dituzu. Beste bi mailatan, ordea, gazteluan marraztuta agertzen diren irudiak osatu beharko dituzu, horretarako dituzun piezak erabiliz. Eta bitartean, non dago munstroa?

AZTEKEN ALTXORRA

Aurkituko al duzu aztekek ezkutatutako altxorra? Horretarako, tenpluak eskatzen dizun ezkutuko kodea idatzi beharko duzu. Kontuz, kodea asmatzen ez baduzu tenplua hase-rreru egiten da eta!

PAZKO UHARTEKO LAGUNAK

Pazko uhartearen lagun harrigarriak aurkituko dituzu. Nahi izanez gero, zuk zeuk sor ditzakezu lagunak. Horretarako, nahikoa duzu zure lagunak izango dituen hanka-, begi- eta aho-kopurua aukeratzea. Baina, ustekabeak gustuko badituzu, egin kasu piratak esaten dizunari, eta berak esan bezala sortuko dituzu lagunak. Itxura ederra dute!

ZERUKO IZARRAK

Munduko uharte batzuetan gau izartsuetan zerura begiratuta gauza harrigarriak ikusten dira. Badirudi izarrek irudiak osatzen dituztela; asmatu kasu bakoitzean zer irudi den! Lehenengo mailan, Otik10era bitarteko zenbaki-segida jarraitu beharko duzu ordenan marrazkia osatzeko. Bigarren mailan, Otik abiatu eta piratak esaten dizun zenbakia lotu duzun azken izarrari batuz osatu beharko duzu irudia. Hirugarren mailan, pirata handientzat da bakarrik: Otik abiatu eta piratak esaten dizun zenbakia batu edo kendu egin beharko diozu lotutako azken izarrari, horrela irudia osatuz. Zorte on!

SOTO MISTERIOTSUA!

Pirata-ontziko sotoan dauden barrikak nahasirik daude. Lagundu piratei barriketan ezkutatzen diren bikoteak osatzen! Lehen mailan, irudi geometrikoek osatzen dituzte bikoteak. Berdinak diren irudi geometrikoak eta osagarriak diren irudiak bilatu beharko dituzu barriketan. Bigarren mailan, batuketak eta beraien baturak bilatu beharko dituzu. Hirugarren mailan, berriz, batuketak eta beraien baturak bilatu beharko dituzu batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, kenketak eta hauen kendurak. Ez duzu lan makala egiteko!

KALKULAGAILUA

Batuketak, kenketak... zenbat buruhauste! Kontuekin asmatu ezinik bazabiltza, piraten kalkulagailua erabil dezakezu. Ez da nolanhiko kalkulagailua gainera!

- Sor al ditzakezue antzeko jolasik, ordenagailua erabili gabe? Erabiltzen al duzue antzekoren bat? Azaldu taldeko kideei zuek zeuek asmatuiko beste jolas batzuk; adibidez, kalkulagailua erabiltzen trebatzeko, edo forma geometrikoak ikasteko. Gustukoak al dituzte horrelakoak zeuen seme-alabek?

BESTERIK NAHI?

Hona hemen "Leireren opor miresgarriak" liburuaren laburpena

Mitologiari buruzko lehiaketa batean irabazitako saria dela medio, bi familia euskaldunek Euskal Herriko zazpi herrialdeetan zehar txango bat egiteko aukera lortu dute.

Bidaia horretan, Euskal Herriko bazter zoragarriak ikusi eta antzinako euskal izaki mitologikoak eta beren istorioak zuzen-zuzenean ezagutzeko eta entzuteko parada izango dute. Leire protagonistaren oporrak benetan miresgarriak izango dira.



- Leirek mitologiari buruzko lehiaketa batean irabazi zuen saria. Eta zeuk... irabaziko ote zenuen? Ea zenbat pertsonaia izendatzen dituzuen minutu batean. Idatzi hemen.

- Liburuaren kontrazaleko laburpenak dioen bezala, bidaian zehar ere izango du euskal mitologiaren pertsonaia nagusien berri izateko aukera. Liburuan horiekin lotutako hainbat istorio jasotzen dira.
 - Taldean jarri. Irakasleak bakoitzari istorio bat duen fitxa bat emango dizue. Irakurri, eta taldeko kideei kontatu. Ea asmatzen duten zein pertsonaiari dagokion!
- Istorio horiek guztiak bidaia baten kontaktetan txertatu ditu Agurtzane Ortiz de Landaluzek. Taldean jarri, eta asmatu pertsonaia horien guztien gorabeherak jasoko dituen ipuin baten gidoia.
- Jakin-minari eutsi ezinda gelditu bazarete, erosi liburua, eta irakurri. Samurra da eta irakurterraza. Eta... zergatik ez! Zeuen seme-alabei kontatu!

AUTOEBALUAZIO-ORRIA

1. Unitate honetan, geografiarekin lotutako kontuak izan ditugu hizpide. Honez gero, pentsatzekoa da oinarrizko hiztegia ezaguna duzula; hala ote? Ea gogoratzen duzun nola esaten diren euskaraz.

| | | | | |
|---------------|-------------------|-------------------------|------------------|-------------------|
| Bahía | Cordillera | Bosque | Colina | Pradera |
| Cañón | Río | Catarata | Riachuelo | Precipicio |
| Huerta | | Campo de siembra | | Arboleda |

2. Unitate honetan, testu-mota ezberdinak irakurtzeko hainbat orientabide eman ditugu. Ikusitakoaren arabera, esan jarraian ematen diren irizpideetatik zeinekin zauden ados eta zeinekin ez:


- Testuetan ideia nagusiak galderen bidez datoz berezituak.
- Ez da erraza esatea zer noiz den hobea, hau da, noiz irakurri ozenki eta noiz isilpean.
- Eskemak ondo egiteko, garrantzitsua da ondo bereiztea testuaren atal nagusiak .
- Eskemak egitea ondo dago, testu idatzien plangintza egiteko, baina ez da irakurtzen trebatzeko ariketa lagungarria.


3. Unitate honetan, gutunak egiteko hainbat aholku eman ditugu. Ea zein gogoratzen dituzun.

4. Unitate honetan, ahalegindu gara ipuin bat asmatzen, haurrari kultur gai baten berri emateko. Ideia egokia iruditzen zaizu 8-12 urteko haurrentzat? Adierazi zure iritzia.


5. Baloratu 1etik 10era.

| | 1 > 10 |
|---------------------------------------------------------------|--------|
| Landu dugun gaia (Auzoa eta herria) interesgarria izan da | |
| Erabili ditugun testuak gustatu zaizkit | |
| Eman diren aholkuak baliagarriak dira | |
| Gomendatu dituzten aldizkariak eta liburuak baliagarriak dira | |
| Neure parte-hartzea | |
| Haurrekin egiteko ideia praktikoak | |









HABE

Helduen Alabetatze eta Berreuskaldunitzerako Erakundea

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



ISBN 84-95827-06-9



9 788495 827067